

23. UNITATEA


PERTSONAIA EZAGUNEN BIZITZA



PROGRAMAZIOA: 23 UNITATEA

1. JARDUERA

Irakur ezazu testua:



Joxemiel Barandiaran Aierbe:

BIZITZA

Antropologoa eta etnologoa. 1889ko abenduaren 31an Perunearre baserrian jaio zen (Ataunen) eta 1991ko abenduaren 21ean Sara etxean hil zen 102 urte egiteko hamar egunen faltan.

Apaiz ikasketak Gasteizko Seminarioan egin ondoren, 1914an apaiz egin zuten.

LANA

Bere lan handienak historiaurreko leize eta aztarnategiei buruzko ikerlanak izan ziren: Aitzbitarte, Santimamiñe, Lezetxiki, Urtiaga, Altxerri, Ekain, Aralar, ...

Mitologia arloan galtzeko zorian zeuden ohitura, sinesmena eta kontu zaharrak jaso eta bildu zituen.

ARGITALPENAK

Haren lanetariko batzuk: *Eusko Mitologia* (1924); *Euskal Herriko lehen gizona* (1934); *Antropología de la población vasca* (1947). Bizitzan zehar egindako lan guztiak OBRAS COMPLETAS izeneko liburukietan aurki daitezke.

Bila ezazu hitz hauen esanahia hiztegian:

Antropologo:

Etnologo:

Leize:

Aztarnategi:

Historiaurre:

PERTSONAIA EZAGUNEN BIZITZA

2. JARDUERA



BIZITZA

Pako Aristi (Urrestilla, 1963). Idazlea. Kazetaritzan lizentziatua da. Rikardo Arregi saria irabazi du bi urtetan jarraian (1992 eta 1993an).

LANA

Saiakera landu du (*Euskal Kantagintza Berria*), nobelagintza (*Kcappo*, *Irene*, *Krisalida*), ipuingintza (*Auto-stopeko ipuinak*) eta haur literatura. 1997an *Castletown* poema liburua argitaratu zuen, eta 1998an *Oherako hitzak*.

ARGITALPENAK

Bere azkeneko nobela *Urregilearen orduak* (1998) izan zen. *Libreta horiko poemak* (2003) eta *Gauza txikien liburua* (Beterriko liburua 2005) dira egilearen azken liburua.

Galdera hauei erantzun:

Zein herritan jaio zen Joxemiel Barandiaran?

Eta Pako Aristi?

Zein lanetan aritu zen Joxemiel Barandiaran?

Zein lanetan aritzen da Pako Aristi?

PROGRAMAZIOA: 23 UNITATEA

PERTSONAIA EZAGUNEN BIZITZA

3. JARDUERA

Irakur ezazu testua:



Jar iezaiozu izenburua atal bakoitzari:

.....
Andoni Egaña Zarautzen jaio zen 1961ean.

Bertsolaria. Euskal Filologia ikasketak egin zituen Gasteizen. 1993, 1997, 2001 eta 2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusietan txapeldun izan zen.

.....
Besteak beste, bertsolari, artikulugile eta gidoigile da. Literaturgintzan ere hainbat liburu argitaratu ditu.

.....
1989, *Sokratikoek ere badute ama*. Erein.

1990, *Aitaren batean*. Elkar.

1997, *Zozoak beleari* (Jon Sarasuarekin). Alberdania.

1998, *Pausoa noiz luzatu*. Alberdania.

Bila ezazu internet-en azken Bertsolari Txapelketa Nagusiari buruzko informazioa:


Idatz itzazu finalera iritsi ziren bertsolarien izenak:

Zenbat puntu lortu zituen irabazleak?

Idatz itzazu Txapelketa Nagusiko bi gai-jartzailereren izenak:

PROGRAMAZIOA: 23 UNITATEA

4. JARDUERA



Irakurri datu hauek:

Eduardo Chillida Juantegi

Euskal eskultore ospetsua.

Jaio: Donostian 1924an.

Hil: Donostian 2002an.

Real Sociedad-eko futbol taldeko atezain.

Karrera artistikoa Parisen.

Eskulturak mundu osoko museoetan.

Donostian "Haizeen orrazia " eskultura.

Eskultura asko Txillida-Leku museoan, Hernanin.

PERTSONAIA EZAGUNEN BIZITZA

5. JARDUERA

Eduardo Txillidaren datuak irakurri eta gero, bere biografia idatzi:

Eduardo Chillida

BIZITZA

LANA
